



I. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2015eko maiatzaren 13, 14 eta 15
Durango, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK

**EAEko alderdi politikoek
hizkuntza politikak eta hizkuntza
ideologiak 1980-2012**

Jone Goirigolzarri Garaizar

138-145 or.
<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.i.18>

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



LAGUNTZAILEAK:



EAEko alderdi politikoen hizkuntza politikak eta hizkuntza ideologiak 1980-2012

Goirigolzarri Garaizar, J.
Deustuko Unibertsitatea
jone.goirigolzarri@deusto.es

Laburpena

Euskara eta gaztelaniaren arteko bizikidetza linguistikoaren auzia bizi-bizirik dago Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eztabaida politikoan. Ezbai-gune zentralak bi dira: batetik, hizkuntzok gizarte mailan bete beharreko funtzioak eta, bestetik, berau egikaritzeko moduak. Eztabaidaren oinarriak ezagutu ahal izateko alderdi politikoen leku-hartze linguistikoaren azterketa burutu da. Horretarako, hizkuntzen gaineko alderdien proposamen politikoak eta ikusmolde ideologikoen ikerketa bateratua bideratu da. Artikulu honetan EAEko bost familia politikoen 1980-2012 arteko EAEko Legebiltzarrerako hauteskunde programen eduki azterketaren diseinua eta zenbait emaitza laburtzen dira.

Hitz gakoak: Euskal Autonomia Erkidegoa, alderdi politikoak, hizkuntza politikak, hizkuntza ideologiak.

Abstract

The debate on the coexistence between Basque and Spanish language is heated in the political arena of Basque Autonomous Community (BAC). The central area of discussion is twofold: on the one hand, the social functions that these languages should fulfill, and in the other hand the way to attain the desired scenario. A research on the BAC's political parties' language emplacement has been conducted in order to approach the foundation of the debate: more precisely, a combined analysis on their language policies and language ideologies. This paper puts forward a summary of the research made on the content analysis of the five political families' regional manifestos for Basque Parliament between 1980 and 2012.

Keywords: Basque Autonomous Community, Political parties, language policies, language ideologies.

1. Sarrera eta motibazioa

Hizkuntzak gizartekideen mintzoak bizi ditu. Halaber, estatuek maila linguistikoan hartzen dituzten erabakiek hizkuntzen gizarte erabilera baldintzatu dezakete. Estatuek esparru publikoan erabiliko diren hizkuntzak hautatu ohi dituzte -herri administrazioan, hezkuntza sisteman, komunikabide publikoetan, etab.- eta epe ertain luzean esparru pribatuko gizarte zibil antolatuaren eta herritarren jokabide eta ideologia linguistikoetan ere eragin dezakete.

Euskara eta gaztelaniaren arteko bizikidetza linguistikoaren auzia bizi-bizirik dago EAEko eztabaida eta jardun politikoan; alderdi politikoen arteko jarrera eta ikuspegi politiko ideologiko desberdinak agerian utziz. Eztabaida-gune zentralak bi dira: batetik, hizkuntzok gizarte mailan izan beharreko tokia eta, bestetik, berau egikaritzeko modua. Azken aldian gainera, historikoki lurraldeotan berba egin diren mintzairaz aparte, herrialdeen arteko hartu-emanak ugaritu ahala, atzerriko hizkuntzek beraiek ere goranzko presentzia bereganatu dute politikoen saio eta mintzoan; bereziki ingelesarenak, bere *lingua franca* estatusak bultzatuta, baina baita etorkin komunitateek beraiekin ekarritako aniztasun linguistikoak ere.

Plangintza linguistikoa zehaztu edota bertan eragiteko ahalmena duten alderdi politikoen leku-hartze linguistikoak ezagutzeak berebiziko interesa dauka egungo eta etorkizuneko elkarbizitza linguistikoaren nondik norakoak ezagutu eta ahal den neurrian aurreikusteko. Artikulu honetan, EAEko alderdi politikoen leku-hartze linguistikoak galdegai izan dituen doktorego tesia aurkeztu nahia da, hain zuzen, ikerketaren diseinua eta emaitza nagusiak.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

EAEko alderdi politikoen leku-hartze linguistikoak modu integral eta osoan aztertu nahi badira, hizkuntzen gaineko alderdien proposamen politikoak eta ikusmolde ideologikoak biak zehaztea komeni da. Doktorego tesian ikuspegi global hori landu nahi izan da eta, hortaz, bi aldeak izan dira aztergai: hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia. Hizkuntza politikak lurralde bateko hizkuntza bizikidetzat antolatze bideratzen diren mintzairen gaineko ekimen politikoak dira; hizkuntza ideologia, berriz, hizkuntzen inguruko sinesmen, ideia, jarrera eta balioak.

Ikerketak bi helburu orokor izan ditu. Lehenengo helburu orokorra EAEko alderdi politikoek proposagai dituzten hizkuntza politika ekimenak eta alderdiek hizkuntzen gainean dituzten sinesmen, ideia, balio eta jarrerak aztertzea izan da; eta bertatik hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia ereduak identifikatzea, betiere alderdi politikoen arteko ikuspegi konparatiboa aintzat hartuta. Era berean, alderdi politikoen hizkuntza politikaren eta hizkuntza ideologiaren artean jarraipenik dagoen ere aztertu nahi izan da. Hau da, hizkuntza politika eredu baten alde egiteak hizkuntza ideologia ikuspegi bat hobestea dakarren ezagutzea; eta, alderantziz, hizkuntza ideologia eredu bat agertzeak hizkuntza politika jakin bat lehenestea ekarriko duen. Hortaz, ikerketaren bigarren helburu orokorra EAEko alderdi politikoen hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia planteamenduen arteko lotura eta bere zer-nolakoa aztertzea izan da.

Bi helburu orokor hauetatik abiatuta eta EAEko errealitate politiko linguistikoa aintzat hartuta zein soziolinguistikaren eztabaida teorikoan zentralak diren gaiak abiapuntutzat jota, bederatzi helburu zehatz planteatu dira. Helburu hauek hiru taldetan sailkatu dira: lehenengo taldean, *hizkuntza politikari* bideratutako helburuak aurkitzen dira; bigarrenetan, *hizkuntza ideologiari* egindakoak eta, hirugarrenean, *hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia* uztartzen dituztenak.

Hizkuntza politikari zuzendutako helburu zehatzak honakoak dira:

- EAEko alderdi politikoek proposagai dituzten politika ekimenetan ageri diren euskara eta gaztelaniaren ofizialtasun eta euskararen normalizazio mailak identifikatzea.
- EAEko alderdi politikoek euskara eta gaztelaniaren arteko bizikidetzat linguistikoa kudeatzeko agertzen dituzten ereduak azalaraztea.
- EAEko alderdi politikoek etorkinei bideratutako politika ekimenen izaera aintzat hartuta, ekimenok hizkuntza politika erregimen batean lekutzea.
- EAEko alderdi politikoek atzerriko hizkuntzei edo ingelesari bideratutako hizkuntza politika ekimenek zenbateko trinkotasun eta barreiadura maila duten identifikatzea.

Hizkuntza ideologiari zuzendutako helburu zehatzak hurrengoak dira:

- EAEko alderdi politikoek hizkuntza gutxituen eskubideei eskaintzen dien tratamendua aztertzea.
- EAEko alderdi politikoek historikoki lurraldean hitz egiten diren hizkuntza guztiei estatus berbera ala bereizia atxikitzen dien ezagutzea.
- EAEko alderdi politikoek nazioarterako desiratzen duten errealitate linguistikoa nolakoa den ikertzea.

Hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren arteko lotura uztartzen duten helburu zehatzak hauek dira:

- Nazio-estatu eta hizkuntza gutxituen eskubideen gaineko ideologiek EAEko alderdi politikoen diskurtsoan presentzia duten jakitea eta alderdi politikoen hizkuntza politika aditzeko duten azalpen indarra ezagutzea.
- EAEko alderdi politikoen hizkuntza politikaren eta hizkuntza ideologiaren arteko loturaren zer-nolakoa aztertzea.

3. Ikerketaren muina

3.1. Ikerketaren zedarritzea

Doktorego tesian azterketa subjektu moduan bost alderdi politiko hautatu dira: EAJ, Ezker Abertzalea, PSE-EE, PP eta Ezker Anitza. Alderdi politikook aukeratzearen arrazoiak bi izan dira. Lehenengoa, bostak bilduta EAEko zatiketa ideologikoaren bi ardatz nagusietan - dimentsio sozioekonomikoa: ezkerre vs. eskuma eta dimentsio nazionalista: autodeterminazio eskubidearen aldekoak vs. kontrakoak- kokatze guztiak batzen dituztela. Bigarrena, 80 hamarkadaz geroztik EAEko alderdi sistemaren parte izanik ikuspegi diakronikoa aintzat hartuta jarduteko aukera ematen dutela.

Bestalde, lan honetan alderdi politikoen hizkuntza politikak eta hizkuntza ideologiak diskurtso mailan landu dira, ez ekintza mailan. Hala, azterketa dokumentu moduan EAEko hauteskunde programak aukeratu dira. Izan ere, hauteskunde programek politika ekimenak eta adierazpen ideologikoak modu uztartuan lantzen dituzte. Gainera, politika alor desberdinen gainean alderdien planteamendu orokor eta orohartzailea agertzen dute eta hauteskundeak aldian-aldian ospatzen direnez denboran zeharreko ikuspegia aintzat hartzeko aukera ematen du. Aldi berean, Eusko Legebiltzarrerara aurkeztzen diren alderdi politiko guztiek hauteskunde programak aurkeztu ohi dituzte eta, beraz, alderdien arteko konparaketak egitea ahalbidetzen dute.

Horrela, lan honen ikergaia modu honetan zedarrituta geratzen da: EAEko alderdi politiko nagusien hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren azterketa 1980 eta 2012 urteen arteko Eusko Legebiltzarreko hauteskunde programetan.

3.2. Ikerketaren metodologia

Alderdi politikoen hizkuntza politikak eta hizkuntza ideologiak maila diskurtsiboan lantzeko eduki azterketa teknika erabili da. Eduki azterketaren xedea testu edo mezuen inferentzia baliozkoak eta errepikagarriak egitea da (Krippendorf, 2004). Ikerketa lan honetan erabilitako eduki azterketa proiektu honetarako apropos diseinatu da, *Manifesto Project* eta *Regional Manifestos Project*-en metodologia oinarri hartuta. Zehazki, garatutakoa eduki azterketa kuantitatiboa da, zeinetan hizkuntzei buruz diharduen hauteskunde programen testu osoa esaldi-muin deritzon kodifikazio-unitateetan banatzen den eta unitateetako bakoitzari aurretiaz diseinatutako kode-sistema bat atxikitzen zaion, kodifikazio prozesuaren amaierarako datu-base bat eraikiz.

Kode-sistema ikerketa objektu diren hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia aldagai teorikoen operazionalizazio prozesuaren fruitu da. Operazionalizazio prozesua bikoitza izan da. Lehenengo operazionalizazio prozesuan, hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia aldagai teorikoak euren ordezkagarri diren ikerketa aldagai sinple eta osagarrietan eraldatu dira. Bigarren operazionalizazio prozesuan, ikerketa aldagaiak kategoria edo kode zerrendetan transformatu dira.

Kode-sistema eraikitzerakoan alderdi politikoei hizkuntzez esateko duten guztia batu nahi izan da. Horrela, esaldi-muinak hizkuntza politika ekimenaren ala adierazpen ideologikoaren gainean eskaintzen duen eduki zehatzaz gainera, edukia zuzendua dagoen mintzaira, politika esparrua, onuraduna, etab. be batu dira. Horrek aldagai anitzeko eta aldibereko kodifikazio-sistema eraikitzea exijitu du. Alegia, esaldi-muin bakoitzak kode gainjarriak bereganatzea. Kodifikazio-sistema honek testu unitate bakoitzak eskaintzeko duen informazioa modu sakonean biltzea ahalbidetu du.

Nabarmentzekoa da, datuen ustiaketaren oinarria kuantitatiboa izan den arren, azterketak atal kualitatiboa ere izan duela. Hain zuzen, datu kuantitatiboak hauteskunde programen irakurketa sakonetik ateratako datu kualitatiboekin uztartuta landu dira.

4. Ondorioak

Ikerketa honek aditzera eman du, aztergai diren EAEko alderdi politikoei hizkuntzen gaineko diskurtso politiko eta ideologiko desberdinak dituztela. Gainera, alderdi politiko bakoitzak gai

desberdinei eskaintzen die zentralitatea beraien diskurtso linguistikoa: EAJren diskurtsoaren muina euskararen normalizazioa aurrera eramateko ekimenek izan dute. Ezker Abertzaleak, oster, diskurtsoaren ia osotasuna euskararen Euskal Herriko egoera gutxitua gaitzesteari eta bere normalizazioa bideratzeko neurri aurrerakoiei bideratu die. PSE-EEk, euskara eta gaztelania oinarri hartuta, gatazka eta alderdikeria linguistikoa gainditu eta bizikidetzatza linguistikoa sakontzeko nahia gailendu ditu maila ideologikoan, eta politikoan, egungo euskararen hizkuntza politikak eragindako hizkuntza eskubide urraketak gaitzetsi eta politikok ebaluatu eta erreformatzeko beharra agertu ditu. Halaber, 2005az geroztik, ingelesaren ikaskuntzari ere protagonismo handia eskaini dio. Bestalde, PPk hizkuntzen gainean EAEn nagusi den alderdikeria gaitzesteari, gaztelania hitzunen hizkuntza eskubideak aldarrikatzeari eta euskara eskakizunak murrizteko neurriek eskaini die zentralitatea. Amaitzeko, Ezker Anitzak estatuko eskualdeko hizkuntzen biziberritzeari tarte esanguratsua egin die, eta euskara eta gaztelaniaren kasuan, herritarren hizkuntza eskubideak bermatu eta koofizialtasuna benetako bihurtzeko politika neurriak lehenetsi ditu.

Hurrengo lerroetan, doktorego tesiaren helburu zehatzen emaitza nagusiak laburbilduko ditugu. Bederatzi helburu zehatzetatik bosti bakarrik erantzungo diegu, artikularen espazio mugak direla eta. Aukeratutakoak hizkuntza ofizialak oinarri dituzten helburu zehatzak dira.

- Ofizialtasun eta normalizazio mailak:

Lehenengo helburu zehatzari erantzunez, EAEko alderdi politikoek proposagai dituzten politika ekimenetan ofizialtasun maila desberdinak ageri dira euskara eta gaztelaniarentzako eta normalizazio maila desberdinak euskararentzako.

Hizkuntza bat ofiziala da botere publikoek beraien barnean, beraien artean eta subjektu pribatuekin harremantzeko komunikazio bide ohiko jotzen badute, baliozkotasun eta efektu juridiko guztiekin (Konstituzio Auzitegia, 82/1986 Sententzia). Euskara botere publikoen komunikazio hizkuntza bilakatzeko bidea egiteke dago. Hori horrela, PPk eta PSE-EEk ez dute bidea beregain hartzen, euskararen ofizialtasuna egingarri bihurtzeko neurri politiko nahikorik ez baitute proposatzen. Ondorioz, gaztelaniari euskarari baino ofizialtasun praktikoa handiagoa eskaintzen die. Ezker Anitzak euskara eta gaztelaniaren arteko ofizialtasun parekidea botere publikoen eta herritarren arteko komunikazioan bideragarri egiteko neurriak ditu proposagai. Berriz, EAJk euskara eta gaztelaniaren arteko koofizialtasun osoa bilatzen du bere politika neurrietan, hau da, botere publikoen barne eta kanpo funtzionamenduan bi hizkuntza ofizialak maila berean erabiliak izatea. Ezker Abertzaleak, oster, euskararen aldeko diglosia funtzionala proposatzen du bere gutxitu egoera gainditzeko modu bakarra delakoan. Horrela, maila praktikoa, euskara gaztelania baino hizkuntza ofizialagoa bihurtzen du.

Hizkuntza normalizazioa desabantaila edo gutxitu posizioan dagoen mintzaira ala hizkuntza aldaera baten egoera soziolinguistikoa hobetzea da, horretarako gizarte esparru anitzetan ekimen sustatzaile sendoak bideratuz. Ikerketak aditzera eman digu, aztergai diren alderdi politikoaren artean badirela euskararen normalizazio prozesuaren baitan kokatzen direnak eta prozesutik kanpo lekutzen direnak. Bigarren horixe da PPren kasua eta, neurri txikiagoan, PSE-EErena. Bi alderdiok ez dute hizkuntza baten normalizaziorako funtsezkoak diren esparru askotan sustapen neurri konkreturik proposatu. Areago, PPk euskararentzako neurri aktiboen ordeztan indarrean dauden sustapen bideen kritika gogorra burutu du, diskriminatzaile eta baztertzaila direlakoan, eta sustapen neurri alternatiborik ez du proposatu. PSE-EEk ez dio uko egiten botere publikoen esku-hartzeari eta euskararen aldeko sustapen neurriak bai proposatu ditu, baina ez normalizazioa egingarri bihurtzeko nahikoak. Gainera bideratutako ekimenetatik asko zehaztasun gutxiagoak dira. Horren adibide dira, euskara babesteko nahia agertzen duten ekimen gabeko baieztapenak. Era berean, aipatu beharrekoa da, PSE-EEk euskararen aldeko ekintza positiboak gaitzetsi egiten dituela. Berriz, EAJ, Ezker Abertzalea eta Ezker Anitza euskararen normalizazio bidean murgilduta daude nahiz eta maila desberdinetan. EAJk euskararen erabilera gizarte alor guztietara zabaltzeko nahi du eta, horretarako, esparru gehientsuenetarako sustapen neurriak proposatzen ditu. Ezker abertzaleak ekimen aniztasun txikiagoa agertzen du, baina EAJrenak baino erabagigarritasun eta hedagarritasun maila

handiagokoak. Esaterako, euskararen ikaskuntza unibertsal bihurtzea edota indarrean dagoen hizkuntza legedia aldatzea euskararen normalizazioari mugak ezartzen dizkiolakoan. Ezker Anitzak euskararentzako politika ekimenen gehiengoa esparru publikoarekin lotutako arloetan zentratu du. Horregatik, pentsatzekoa da, Ezker Anitzak euskarari zuzendutako hizkuntza politika gizarte esparru guztietan euskararen erabilera bermatzera baino ofizialtasun erregimen zabal bat egikaritzera bideratuago dagoela.

- Hizkuntza eskubideen trataera:

EAEko alderdi politiko guztiek hizkuntza eskubideak aldarrikatzen dituzte, baina eskubideok ulertzeko modua eta eskubideoi emandako tratamendua desberdina da. Egitez, alderdien hizkuntza eskubide aldarrikapenen atzean helburu desberdinak daude. Ezker Abertzaleak herritarrei euskaraz jarduteko eskubidea bermatu nahi die eta, aldi berean, euskara maila juridikoan eta sozialean gaztelania eta frantsesarekin berdindu gura du. Gainontzeko alderdiek hizkuntza eskubideei eskatzen diena herritarrek euskara eta gaztelaniaren artean aukeratzeko askatasuna izatea da. Halaber, PP eta PSE-EEren kasuan euskal hiztunei aitortutako hizkuntza eskubideak maila teorikora mugatzen direla esan daiteke, eskubideok egikaritzeko ezartzen dituzten mugak oso zorrotzak direlako. Aipagarrienetakoa, langileria publikoari euskararen ezagutza ezin exijitu ahal izatea. Egitez, PSE-EEK eta PPk herritarren hizkuntza aukera askatasuna bermatzeari baino tarte handiagoa eskaini die indarrean dagoen euskararen hizkuntza politikek gaztelania hiztunei eragiten dizkien bazterketa eta inposaketa egoerak gaitzesteari. Horrela, bi alderdiok tradizionalki hizkuntza gutxituekin lotu diren eskubideak iraultzera heldu dira, hizkuntza eskubideon beharrianean dagoena mintzaira nagusiko hiztuna, gaztelaniaduna dela defendatuz.

- Bizikidetzatza linguistiko ereduak:

Lurralde batean mintzaira bat baino gehiago hitz egiteak hizkuntzen aldi bereko existentzia antolatze beharra nahitaez dakar. Halaber, izate bateratua kudeatzeko moduak eta gizarterako desiratzen diren errealitate linguistikoak ugariak izan daitezke. Atal honetan EAEko alderdi politiko bakoitzak etorkizunari begira EAerako errealitate linguistiko desberdinak desiratzen dituztela erakutsiko da. Ezker Abertzaleak bi errealitate linguistiko ideal irudikatu ditu etorkizunerako: lehenengoa, herritar eleanizdunez osatutako Euskal Herri euskalduna eta, bigarrena, euskarak, gaztelaniak eta frantsesak osatutako Euskal Herri eleanitz berdinazalea. Bestalde, EAJk, Ezker Anitzak eta PSE-EEK elebitasunaren aldeko hautua egin dute. EAJk eta Ezker Anitzak elebitasun erreala desio dute, non euskara eta gaztelaniaren ezagutza eta erabilera orokortua izango den. Ostera, PSE-EE euskararen ezagutza orokortuz joatearen alde agertzen den arren, herritarrek euskara gogoz kontra ikastea ez du nahi; eta ondorioz, elebitasun mota herritarren borondatearen esku uzten du, elebitasun diglosiko zein faltsuari bidea zabalduz. PPk ez du orokorrean errealitate linguistiko desiragarria hizpide izan. Birritan elebitasun naturalaren alde agertu izan da. Naturalaren inguruan zehaztapenik ematen ez duen arren, pentsatzekoa da gizarteak bere eguneroko jardunean esku hartu barik eraikitako elebitasuna gura izatea PPk; orain arteko joerak mantenduz gero, elebitasun faltsua litzatekeena.

- Lurraldeko hizkuntzei eskainitako estatusa:

Euskal testuingurua eleanitza da bere mugen baitan hizkuntza desberdinak hartzen dutelako aterpe. Egoera eleanitz horrek mintzaira batzuekiko eta besteekiko lotura diferenteak ezartzeko bidea zabaltzen du, hau da, mintzaira batzuei eta besteei balio desberdinak atxikitzeak. EAEko alderdi politikoen kasuan horrela gertatzen da. EAJk, Ezker Abertzaleak eta Ezker Anitzak euskal lurraldean euskarari estatus berezia edo bereiztua eskaintzen dien bitartean, PSE-EEK eta PPk euskara gaztelaniarekin parekatzen dute. Gainera, lehen hiru alderdiek euskararen estatus bereiztua Euskal Herrira zabaltzeko dute; alegia, euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza, ondare kultural eta identitate zeinu moduan onartzen dute. PSE-EEK eta PPk, ostera, Euskal Herria ez dute buruan hartzen eta PPk euskara eta euskal kultura Espainiar Estatuaren parte jo izan ditu. Bestalde, Ezker Anitzak euskarak euskaldunentzako duen estatus berezia onartu eta Euskal Herriaren aitorpena burutzen duen era berean, euskara, euskal kultura eta Euskal Herria

Espainiar eta Frantziar Estatuaren baitan kokatzen ditu. Horrela, Espainiar Estatuaren erreferentzia moduan hartzerakoan euskara testuinguru eleanitzeko hizkuntzetako bat izatera pasatzen da.

- Nazio-estatu eta hizkuntza gutxituen eskubideak hizkuntza politikan:

EAEko alderdi politikoen hizkuntza politiken eta alderdiok hizkuntza eskubideei emandako tratamenduaren atzean nazio-estatu eraikuntza proiektu desberdinak ostentzen direla baieztatu daiteke. EAJren kasuan erro etniko-kulturalera nazionalismoa agerikoa da. Alderdiak euskarari modu eksklusiboan Euskal Herriko berezko hizkuntza, ondare kultural bereizgarri eta funtsezko identitate zeinu estatusa atxikitzen dizkio eta horrek euskal hiztunen euskaraz jarduteko eskubidea aitortu eta egikaritzera darama, baita euskararen normalizazioarekin konpromiso erabatekoa agertzeraren ere, hizkuntza politika aktibo eta orobiltzailea proposatuz. Ezker Abertzalearen kasuan be, euskal nazionalismoa begi-bistakoa da, baina EAJrenagandik erabat desberdina. Ezker Abertzalearentzako euskarak balio identitarioa izateaz gainera balio instrumentala ere badu; hain zuzen, alderdiak xede duen nazio-estatuaren nazio hizkuntza izatea. Horrela, Ezker Abertzaleak hizkuntza politika osoa bere nazio-estatu proiektuaren eraikuntzara bideratu du. Guzti horrek hizkuntza eskubideak ulertzeko moduan ere badu eragina: euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza nazionala izanik, euskal hiztun komunitatea gorengo hizkuntza eskubideen jasotzailea da eta euskara ikastea gaztelania hiztun elebazarrei exijitu beharrekoa.

Ezker Anitzaren proiektu nazionala bestelakoa da. Alderdiaren nahia Estatu Federal nazio, kultura eta hizkuntza anitza eraikitzea da non Estatuak bere herritarren mintzaira guztiak bertoko hizkuntza moduan hartuko dituen. Horrela, hizkuntza eskubide mailan Ezker Anitza Espainiar Estatuaren hizkuntza guztiei estatus berbera ematearen alde agertzen da, herritar guztiek beraien mintzairan jarduteko eskubidea dutela hausnartuta. Ezker Anitzaren leku-hartze ideologikoaren eta bideratutako hizkuntza politikaren artean jarraipena erabatekoa dela esan daiteke. Euskal herritarren hizkuntza eskubideak errespetatze aldera eta euskararen egoera diglosikoa ezagun, Ezker Anitzak estatu-egituren pean kokatzen diren zerbitzuak euskaraz jasotzeko politika aurrerakoiak baititu proposagai.

PPk euskal nazionalismoaren errotiko ukapena burutzen du eta nazio-estatu zibiko-politikoaren idealekin bat egiten du; hain zuzen, estatuaren egiteko nagusia banakakoaren askatasuna babestea dela goraipatuz. Hortik, askatasun linguistikoaren defentsa sutua, alderdiaren hizkuntzen inguruko diskurtso ideologiko eta politiko osoa gidatu duena. Halaber, esan daiteke PPren ageriko diskurtso zibiko-politiko nazio-estatuaren ikuspegi etniko-kultural ezkontuagoak baldintzatua dagoela. Horren erakusgarri dira, besteak beste, PPk euskara eta gaztelaniaren artean ezarritako estatus hierarkizazioa edota euskaldunen hizkuntza komunitateari ezartzen dion ikuspuntu estatikoa, euskaldunen gutxitu egoera betikotuz.

Maila diskurtsiboan PSE-EEk euskara eta gaztelaniari estatus etniko-kultural berbera atxikitzen die eta elebitasun parekidearen alde agertzen da. PPren kontrara, hizkuntza gutxituen eskubideak eta euskararentzako sustapen neurriak bai babesten ditu, baina gaztelania hiztunen bazterketa ala inposaketa zantzurik ematen ez den bitartean. Horrela elebitasunaren aldeko diskurtso teorikoa gaztelaniaren aldeko bihurtzen da maila praktikoa, bi mintzairaren gizarte egoera ez baita parekoa.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Ikerketa honek etorkizunerako mahaigaineratzen dituen azterketa ildoak anitzak dira. Bide bat konparaziozko ikuspegiari jarraipena ematea litzateke. Hau da, doktorego tesian proposatu den hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren azterketa uztartua oinarri hartuta, eskualde zein herrialde desberdinen arteko konparaziozko ikerketak burutzea. Euskal Herriaren baitan hiru eremu politiko-administratiboaren arteko konparaketa egitea litzateke interesgarria. Aldi berean, errealitate linguistiko eta eskumen politiko mailan dituzten parekotasunekaitik, emankorra litzateke Euskal Autonomia eta Nafarroako Foru Erkidegoko alderdi politikoen hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiak Katalunia, Gales eta Quebec-eko alderdi politikoei

dituztenekin erkatzea eta modu horretan irismen zabalagoko nazioarteko ikerketa proiektua planteatzea. Norabide horretan, doktorego tesian diseinatutako eduki azterketa eredua lurralde desberdinen arteko azterketa konparatiboetarako egokitzea litzateke xedea, hau da, alderdi politikoen hizkuntza politikak eta hizkuntza ideologiak modu sistematikoan ikertzeko tresna eraikitzea. Aldi berean, ikerketa barri hauek burutzeko zein orain artekoari jarraipena emateko, metodologia berriein jokatzea ere aberasgarria litzateke. Esaterako, hizkuntza ideologiak modu sakonagoan ikertzeko hauteskunde programen diskurtso analisia burutzea.

6. Zenbait erreferentzia

- Boix-Fuster, E. eta Strubell, M. (2011): *Democratic policies for language revitalisation: the case of Catalan*. Palgrave Macmillan, Hamshire.
- Branchadell, A. (1996): *La normalitat improbable*. Empúries, Bartzelona.
- , (2005): *La moralitat de la politica lingüística. Un estudi comparat de la legitimitat liberaldemocrática de les polítiques lingüístiques del Quebec y Catalunya*. Institut d'Estudis Catalans, Bartzelona
- Bastardas i Boada, A. eta Boix-Fuster, E. (arg.) (1994): *¿Un estado una lengua? La organización política de la diversidad lingüística*. Octaedro, Bartzelona.
- Cobrerros, E. (1998): "Algunas reflexiones sobre la Ley de Normalización del Euskera", *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 43(2), 333–339.
- Duchêne, A. eta Heller, M. (2007): *Discourses of endangerment: Ideology and Interest in the Defence of Languages. Interest and Ideology in the Defence of Languages*. Continuum, Londres.
- Goirigolzarri-Garaizar, J. (2013): "Hizkuntza politikak eta hizkuntza ideologiak EAEko alderdi politikoetan: 2009ko legebiltzarreko hauteskunde programak", in *Inguruak*, 55-56, 1735-1752.
- Hernández, J. M., Olaso, O. eta Martínez de Luna, I. (2006): "Theoretical, Social and Political Discourses on the Basque Language", in M. J. Azurmendi eta I. Martínez de Luna (arg.), *The case of Basque: past, present and future*. Soziolinguistika Klusterra, Andoain, 103–117.
- Kasares, P. (2004): *Hizkuntza eskubideak Euskal Herrian. Cuadernos Deusto de Derechos Humanos*. Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Klingemann, H., Hofferbert, R. eta Budge, I. (1994): *Parties, Policies and Democracy*. Westview Press, AEB.
- Krippendorff, K. (2004): *Content Analysis: an introduction to its methodology*. Sage, Thousand Oaks.
- Kymlicka, W. eta Patten, A. (2003): *Language rights and political theory*. Oxford University Press, Oxford.
- May, S. (2012): *Language and Minority Rights. Ethnicity, Nationalism and the Politics of Language*. Taylor & Francis, New York.
- Neuendorf, K. A. (2002): *The content analysis guidebook*. London: Sage.
- Ricento, T. (2006): *An Introduction to Language Policy: Theory and Method*. Blackwell, Oxford.
- Saldaña, J. (2009): *The Coding Manual for Qualitative Researchers*. Sage, Londres.
- Sartori, G. (1992): *Partidos y sistemas de partidos: marco para un análisis*. Alianza, Madril.
- Spolsky, B. (2004): *Language Policy*. Cambridge University Press, Cambridge.
- Swann, A., Lillis, T. eta Mesthrie, R., J. (2004): *A dictionary of sociolinguistics*. Edinburgh University Press, Edinburg.

Vernet, J., Pons, E., Pou, A., Solé, J. R., eta Pla, A. M. (2003): *Dret lingüístic*. Valls: Cossetània.

Woolard, K. (1992): Language Ideology: Issue and Approaches. *International Pragmatics Association*, 2, 235-249.

7. Eskerrak eta oharrak

Aurkeztutako lana Francisco Garmendia Agirrezabalagak eta Francisco Juaristi Larrinagak zuzendutako doktorego tesiaren laburpena da. Doktorego tesia 2015eko urtarrilaren 30ean depositatuta zen eta beronen defentsa 2015eko maiatzean izatea aurreikusten da Deustuko Unibertsitatean (Bilboko Campusa). Nire eskerrik onenak urte hauetan aholkularitza paregabea eskaini didaten tesi zuzendariei.